

RED MEKANISMOA BIDAIA-AGENTZIEN SEKTOREAN **AKTIBATZEARI BURUZKO ZIRKULARRA**

2022ko apirilaren 1ean argitaratu da BOEn PCM/250/2022 Agindua, martxoaren 31koa, Ministroen Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an hartutako erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, hain zuzen, enplegua malgutzeko eta egonkortzeko RED mekanismoa aktibatu da bidaia-agentzien sektorerako, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 47 bis artikuluekin bat etorriz (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta).

Zein dira aplikatu beharreko arauak?

- [Langileen Estatutuaren 47 bis artikulua.](#)
- [Martxoaren 15eko 4/2022 Errege Lege-dekretuaren II. xedapen iragankorra](#)
- [PCM/250/2022 Agindua, martxoaren 31koa](#)

Langileen Estatutuaren 47 bis artikuluan arautzen da RED mekanismoa. Baina zer da?

Enplegua malgutzeko eta egonkortzeko RED mekanismoa aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen modalitate berri bat da, soilik erabili daitekeena Ministroen Kontseiluak aktibatzen badu oro har edo sektore jakin batean produkzioari eragiten dioten aldaketak gertatzen direlako. Horri esker, enpresek honako hauek eska ditzakete:

- lanaldiaren murrizteko neurriak eta/edo
- lan-kontratuak eteteko neurriak

Zer ulertzen da lanaldia murriztea esaten denean?

Lanaldia murrizteak zera dakar: eguneko, asteko, hileko edo urteko lanaldia oinarritzat hartuta % 10 eta % 70 artean murriztea lansaioa.

Zein modalitate daude RED mekanismoan?

Mekanismoak bi modalitate izan ditzake:

1. Ziklikoa: egoera makroekonomiko orokor baten ondorioz lana egonkortzeko baliabide osagarriak hartu behar direnean; gehienez urtebeterako.

2. Sektoriala: jarduera-sektore jakin batean edo batzuetan gertatzen diren aldaketak iraunkorrak direnean eta horien ondorioz langileen lanbide-prestakuntza eguneratu behar denean eta haien lanbidea aldatzeko prozesuak sortzen direnean; hasieran gehienez urtebeterako baina bi luzapen egiteko aukerarekin (sei hilekoa luzapen bakoitza).

Zein modalitatetan sartzen da bidaia-agentzientzako RED mekanismoa? Eta zer enpresek heldu ahal diote 2022ko apirilaren 1ean indarrean jarriko den bidaia-agentzien RED mekanismoari?

Modalitate **sektorialean** sartzen da RED mekanismo hori.

Bidaia-agentzien RED Mekanismoari heldu ahal izateko, enpresek, 2022ko martxoaren 31n, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (**EJSN 2009**) honako kode hauetan sailkatuta izan behar dute beren jarduera: **7911**, **7912** eta **7990**.

EJSN horietan sartzen diren enpresek noiz eska dezakete RED mekanismoak baimentzen dituen lanaldia murrizteko edo lan-kontratuak eteteko neurriak aplikatzeko?

2022ko apirilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean eska dezakete. Azken egun horretan mekanismoa indarririk gabe geratuko da, enpresek eskaera noiz aurkeztu duten gorabehera.

Non aurkeztu behar da enpresa RED mekanismoan sartzeko eskabidea?

Behin mekanismoa aktibatuta, arestian aipatu EJSNetan sartzen diren enpresek enplegatu baten, batzuen edo guztien lanaldia murrizteko eska dezakete, edo enplegatu baten, batzuen edo guztien lan-kontratuak eteteko.

Eskabidea non aurkeztu:

- Laneko eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzan, baldin eta enpresa beraren lantoki bati edo batzuei eragiten badie eta lantoki horiek lurralde historiko berean badaude.
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzan, baldin eta enpresa beraren lantoki batzuei eragiten badie eta lantoki horiek lurralde historiko desberdinetan badaude.

Zer dokumentazio erantsi behar zaio lan-agintaritzan aurkeztu beharreko hasierako eskabideari?

1. Langileen ordezkariak RED mekanismoa izapidetzen hasteko asmoa dagoela jakinarazteko egiten duten komunikazioaren kopia bat.
2. Kontsultak hasiko direla jakinarazteko komunikazioaren eta langileen ordezkariak eman zaien dokumentazioaren kopia bana.

3. Negoziazio-batzordeko kideen eta langileak ordezkatzeko dituen batzordeko kideen identifikazioa; bestela, egoki denean, azken batzorde hori lege ezarritako epeetan eratu ez izanaren adierazpena.

Garrantzitsua: modalitate sektorialean, tartean dauden langileen prestakuntza eguneratzeko plan bat ere aurkeztu behar da.

Zer dokumentazio eman behar zaie langileen ordezkariari kontsultetarako aldia hasi dadin?

Kontsultetarako aldia hasteko komunikazioarekin batera honako dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

1. RED mekanismoa aktibatze erabakian jasotzen den aldi baterako egoera (klinikoa edo sektoriala) enpresan betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
2. Lanaldia murrizteko edo lan-kontratua eteteko neurriak aplikatzeko epealdia.
3. Prozeduran sartzen diren eta, ondorioz, aldi baterako enplegu-erregulaziorako neurriak ukituko dituen langileen identifikazioa.
4. Langile bakoitzari aplikatu beharreko neurri-mota eta lanaldia murrizteko gehieneko ehunekoa edo, hala dagokionean, kontratua eteteko gehieneko egun kopurua.
- 5.- Modalitate sektorialean, gainera, ukitzen diren pertsonentzako prestakuntza eguneratzeko plan bat ere aurkeztu beharko da komunikazio horrekin batera.

Nola parte hartzen du Lan Ikuskatzailtzak RED mekanismoan?

Lan-agintaritzak Laneko eta Gizarte Segurantzako Lan Ikuskatzailtzari helarazi beharko dio enpresaren eskabideko edukia, eta kasu bakoitzean bete beharreko baldintzak betetzen diren jakiteko nahitaezko txostena eskatu beharko dio. Txosten hori zazpi egunetan egin beharko da, eta ez da luzapenik onartuko.

Zein da RED mekanismoari lotutako kontsultetarako aldia?

Langileen ordezkariarekin egiteko kontsultetarako aldiaren iraupena gehienez ere hamabost egunekoa izango da.

Plantillan berrogeita hamar pertsona baino gutxiago dituzten enpresetan, aldiz, epealdi hori gehienez ere zazpi egunekoa izango da.

RED mekanismoa aplikatzen den aldian, enpresak espedientean sartzen diren langileen gaineko eragina ezarri/kendu dezake, edo lanaldiaren murrizketaren ehunekoa alda dezake?

Espedientea aplikatzen den aldian, enpresak langileen gaineko eragina ezarri/kendu dezake eta lanaldiaren murrizketen ehunekoak alda ditzake, baldin eta neurriak aplikatzeko arrazoi moduan alegatu diren inguruabarrak aldatzen badira.

Hori egin baino lehen, dena den, langileen ordezkariak jakinarazi beharko die eta gizarte-prestazioen entitate kudeatzaileari eta GSDNri aldez aurretik jakinarazpena egin beharko die (SEPE/IGI).

RED mekanismoa aplikatzen den aldian, aparteko orduak egin daitezke edo jarduera kanporatzeko ekintza berriak nahiz kontratazio berriak egin daitezke?

Ez. RED mekanismoaren espedientea aplikatzen den aldian, oro har, ezin dira aparteko orduak egin, ezin da jarduera kanporatzeko ekintza berririk egin eta ezin da lan-kontratazio berririk hitzartu.

Hala ere, salbuespentzat hartuko da prestakuntza, gaikuntza edo bestelako arrazoi objektibo eta justifikatuengatik, tartean dagoen lantokiaren lan-kontratua aldi baterako eteteko/lanaldia aldi baterako murrizteko neurrien eraginpean dauden pertsonak ezin izatea agindu zaizkien eginkizunak bete. Kasu horretan, enpresak horren berri emango die langileen legezko ordezkariak.

Langile bati kontratua eteteaz gainera lanaldia murriztu dakioke? Bi aukerak batu daitezke?

Ez, langile bakoitzari aukera bakarra aplika dakioke: lanaldiaren murrizketa edo lan-kontratuaren etetea. Ezin dira bi aukerak batera aplikatu (04/22 EDLren II.2.a XI).

Zer eduki izan behar du enpresak lan-agintaritzari bidali beharreko azken komunikazioak?

Gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

1. Tartean dauden pertsonak, lanbide-taldeak, lanpostuak eta soldata-mailak. Kasu bakoitzean ondo zehaztu beharko da zein den neurria: eguneko, asteko, hileko edo urteko lanaldia murriztea edo kontratua etetea.
2. RED mekanismoa ondorioak izaten hasiko den eguna. Lan-agintaritzari azken komunikazioa egin aurrekoa izan daiteke egun hori, baina inoiz ez mekanismoa aktibatzeke eguna baino lehenagokoa.
3. Lanaldia murrizteko edo lan-kontratua eteteko neurriak aplikatzeko epealdia, mekanismoa aktibatzeke erabakian ezartzen den muga betez.
4. Tartean dauden pertsona, lanbide-talde, lanpostu edo soldata-maila bakoitzerako adostutako eguneko, asteko edo hileko lanaldi-murrizketaren gehieneko ehuneko edo, hala badagokio, kasu bakoitzean aplikatu beharreko kontratuaren etetearen gehieneko egun-kopurua.

5. RED mekanismoaren modalitate sektorialean, prestakuntza eguneratzeko behin betiko plana. Langileen Estatutuaren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen diren prestakuntza-ekintzak jaso ahal izango dira prestakuntza eguneratzeko planean.

RED mekanismoa atzeraeraginez aplikatu daiteke, eskabidea aurkeztu zen egunetik?

Bai.

Enpresak RED mekanismoa aplikatzeko asmoz lan-agintaritzari bidaltzen dion azken komunikazioan zehaztuta agertu behar da RED mekanismoa ondorioak izaten hasiko den eguna. Lan-agintaritzari azken komunikazioa egin aurrekoa izan daiteke egun hori, baina inoiz ez mekanismoa aktibatzeke eguna baino lehenagokoa.

Hau da, bidaia-agentzientzako RED mekanismoa 2022ko apirilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldirako aktibatu da, beraz, enpresek egiten dituzten azken komunikazio guztietan 2022ko apirilaren 1a jarri ahal izango dute atzeraeraginezko data moduan. Data ez da izango inoiz hori baino lehenagokoa.

Zenbat denbora du lan-agintaritzak ebazpena emateko?

Lan-agintaritzak zazpi egun natural ditu ebazpena emateko, kontsultetarako aldia amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Epe hori igaro ostean ebazpenik eman ez badu, administrazioaren isiltasuna **positiboa** izango da eta neurria baimendutzat joko da, betiere legez eta erregelamenduetan ezarritako mugak betez.

Zer gertatzen da kontsultetarako aldia amaitzean akordioa lortu bada?

Kontsultetarako aldia amaitzean akordioa lortu bada, lan-agintaritzak mekanismoa aplikatzeko baimena emango du eta, orduan, enpresa adostutako lanaldiak murrizten edo lan-kontratuak eteten hasi daiteke.

Zer gertatzen da kontsultetarako aldia amaitzean akordioa lortu EZ bada?

Kontsultetarako aldia amaitzean akordioa lortu ez bada, lan-agintaritzak ebazpena emango du, enpresaren eskaera baieستeko edo ezesteko.

Eskaera baietsiko du baldin eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera aldi baterako egoera ziklikoa edo sektoriala artikulua honetan ezarritako baldintzak betez gertatzen bada.

Lan-kontratua eteteko/lanaldia murrizteko neurria luza daiteke?

Bai, lan-kontratua eteteko/lanaldia murrizteko neurria behin bakarrik luza daiteke, baina horretarako kontsultetarako beste aldi bat ezarri beharko da, gehienez 5 egunekoa.

Zein onura aplikatu dakizkieke RED mekanismoarekin lotutako espedientei Gizarte Segurantzako kotizazioan?

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren berrogeita laugarren xedapen gehigarrian jasotako onurak aplikatu ahal izango dira kotizazioan, baina horretarako, tartean dauden pertsonen lanean jarraitu beharko dute espedientearen indarraldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteetan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 1a